LAMERAKO PARKEAREN ARGITERI INTELIGENTEAREN INSTALAZIOAREN KONTRATAZIORAKO PLEGU TEKNIKOAK

BERMEO, HELMUGA EKOTURISTIKOA: BERTAKO NATURA- ETA KULTURA-ONDAREA ZAINTZEA ETA BALIOESTEA BERRESKURATZE-, ERALDATZE- ETA ERRESILIENTZIA-PLANA, EUROPAR BATASUNEKO FUNTSEK FINANTZATUTA-NEXT GENERATION EU): 2.2. JARDUKETA.- LAMERAKO PARKEAREN ARGIZTAPEN INTELIGENTEA

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Sinadurea eta datea

JON MIKEL FORURIA MARTIN-URIGINTZA TEKNIKARIA - 04/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/06/2024 15:04:08

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0004

Datea: 14/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

AURKIBIDEA

I .....SARRERA

II .....AURREKARIAK

III .....DESKRIBAPENA

IV .....EZAUGARRI TEKNIKOAK

V .....AURREKONTUA

VI .....KOKAPEN PLANOA

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Sinadurea eta datea

JON MIKEL FORURIA MARTIN-URIGINTZA TEKNIKARIA - 04/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/06/2024 15:04:08

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0004

Datea: 14/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

I. SARRERA

Bermeoko Udalaren jasangarritasun turistikoko plana 2023: Bermeo, helmuga ekoturistikoa: bertako natura- eta kultura-ondarea zaintzea eta balioestea (Berreskuratze-, Eraldatze- eta Erresilientzia-Plana, europar batasuneko funtsek finantzatuta-Next Generation EU): 2.2. jarduketa.- Lamerako parkearen argiztapen inteligentea.

Lamerako argiztapenerako behe tentsioko instalazio elektrikoa gauzatzeko proiektuaren idazketa lana eta obraren zuzendaritza dira kontratu honen objektu.

Bermeoko Jasangarritasun Turistikoaren Planaren Barruan proiektu hau egitea aurreikusita dago. “Bermeo helmuga ekoturistikoa: Tokiko natura eta kultura ondarea kontserbatzea eta balioan jartzea” eta Euskadi helmuga turismo jasangarritasuneko lurralde planari dagokiona eta Euskadi helmugaren berreskuratze, eraldaketa eta errresilientzia planaren barruan kokatuta dagoena, eta Next Generation Europa Batasuneko funtsek finantzatuta). Izan ere, proiektu hau “ Actuaciones de inversión por parte de entidades locales en el marco del Componente 14 inversión 1 del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia” deituriko diru laguntza programara atxikituriko epe eta ezaguarrei lotuta dago. (2023ko maiatzaren 22koa Turismoko Estatu Idazkaritzaren Ebazpena – ESTATUKO ALDIZKARI OFIZIALA 119. Zenbakia).

Jarduera hau “ Bermeo helmuga ekoturistikoa; Tokiko natura eta kultura ondarea kontserbatzea eta balioan jartzea” eta Euskadi helmuga turismo jasangarritasuneko lurralde planari dagokiona eta Euskadi helmugaren berreskuratze, eraldaketa eta erresilientzia planaren barruan kokatuta dagoena, eta Next Generation Europa Batsuneko funtsek finantzaturiko jarduera da.

Bestalde, aipatu beharrekoa da 2023ko azaroaren 28an “ hitzarmena, euskal autonomia erkidegoko administrazio orokorraren (turismo, merkataritza eta kontsumo sailaren bitartez) eta bermeoko udalaren artekoa, “bermeo, helmuga ekoturistikoa: bertako natura- eta kultura-ondarea zaintzea eta balioestea” 2023ko helmugako jasangarritasun turistikoko plana / 2023ko eguzkia eta hondartza– turismo urdinaren plan nazionala garatzeko, euskadi helmugako jasangarritasun turistikoaren lurralde planari dagokiona, next generation eu-europar batasuneko funtsekin finantzatua” sinatu dela funts horiekin finantzatutako proiektu eta azpiproiektuen jarraipen koordinatu egoki bat egikaritzeko.

Bestalde, Bermeoko Udalak Lamerako ingurunean dagoen argiztapenaren behe tentsioko instalazio elektrikoaren instalazioa aurrera eramatea pentsatuta dauka, horretarako ezinbestekoa da horren proiektuaren idazketa lana eta obraren zuzendaritzaren kontratazioa egikaritzea.

Horretaz gain, ekainaren 14ko 2022/9 legeak, Arkitektuaren kalitarearena, Sektore Publikoko kontratazioaren 2017/9 Legeko 308. artikuluko 4.atalean egin duen aldaketa dela eta obraren proiektuaren idazketa lana eta obraren zuzendaritza batera kontratu ahalko dira, holan egiten ez bada koordinazio edo kalteak sortu ahalko badituen (*Podrá contratarse de forma conjunta la redacción de proyectos y la dirección de obra cuando la contratación separada conllevase una merma en la calidad de las prestaciones objeto del contrato, dificultando la coordinación y continuidad entre la fase de redacción del proyecto y su ejecución en obra. El órgano de contratación motivará debidamente en el expediente que concurren estas circunstancias*). Izan ere, kasu honetan, komenigarria da bi zerbitzu hauek batera kontratzea zeren eta pertsona berdinak proiektuaren idazketa eta gero dagokion obraren zuzendaritza aurrera eramatea koordinazio handiago eta arazo gutxiago sortzen ditu etorkizuneko obra egoki egikaritzarako.

Proiektua idazteko hurrengoa hartuko da kontutan:

1.- Jarduketak 2021/241 (EB) Erregelamenduaren VI. eranskinean azaldutako 026Bis etiketarako baldintzak bete beharko ditu. Esleipendunak honako betebehar hauek bete beharko dituela etiketa berdearen eta etiketatze digitalaren arloan:

Etiketaren definizioa sartzea ere komeni da, 2021/241 (EB) Erregelamenduaren arabera. Kasu honetan, 026bis-ari dagokiona, honako hau da:

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Sinadurea eta datea
JON MIKEL FORURIA MARTIN-URIGINTZA TEKNIKARIA - 04/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/06/2024 15:04:08

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0004
Datea: 14/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

- Esku-hartze eremua: Energia-eraginkortasuna berritzea edo energia-eraginkortasuneko neurriak azpiegitura publikoei, erakusketa-proiektuei eta energia-eraginkortasuneko irizpideekin bat datozen laguntza-neurriei dagokienez[1]

2.- Aurrera eramango den instalazio jarduketarekin energia-kontsumoaren %30a, gutxienez, murriztuko da.

- Arriskuen analisia ingurumenean izan daitezkeen inpaktu negatibo esanguratsuei dagokienez (Do no significant harm, DNSH), eta emaitzen jarraipena eta egiaztapena, hasierako ebaluazioari dagokionez:
Gauzatzen diren jarduketek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa errespetatuko dute (do no significant harm - DNSH printzipioa), Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/241 (EB) Erregelamenduan (2021eko otsailaren 12koa, Berreskuratze eta Erresilientzia Mekanismoa ezartzen duena) eta hura garatzeko araudian xedatutakoa betez, bereziki 2020/852 (EB) Erregelamendua, inbertsio jasangarriak errazteko esparru bat ezartzeari buruzkoa, eta Europako Batzordearen Gida Teknikoa (2021/C 58/01), printzipio horren aplikazioari buruzkoa, bai eta Kontseiluaren Betearazpen Erabakian (Espainiaren berreskuratze- eta erresilientzia-planaren ebaluazioa onartzeari buruzkoa) eta haren dokumentu erantsian eskatutakoa ere.
Egiten diren jarduera guztietan, ingurumen-araudi nazionala eta EBkoa errespetatuko dira, eta, nolanahi ere, ingurumen-ebaluazioko prozedurak errespetatuko dira, indarreko legeriaren arabera aplikatzekoak direnean, bai eta ingurumen-legeriaren arabera aplikagarriak izan daitezkeen beste eragin-ebaluazio batzuk ere.
BEEPan jasotako egikaritze-neurriek ezin diete kalte esanguratsurik egin ingurumen-arloko sei helburuei:
1. .....Klima-aldaketa arintzea;
2. .....Klima-aldaketara moldatzea;
3. .....Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa;
4. .....ekonomia zirkularrerantz trantsizioa egitea;
5. .....Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola;
6. .....biodibertsitatea eta ekosistemak babestu eta lehengoratzea.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek Europar Batasuneko eta Estatuko ingurumen-arloko araudia betetzen dela bermatuko dute, (2021/C58/01) Gida Teknikoko «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioaren (do no significant harm-DNSH printzipioa) arabera. Era berean, kontratu honen xede den jardueraren bat edo guztia azpikontratatuz gero, erakunde esleipendunak mekanismoak aurreikusi beharko ditu azpikontratistek «ingurumenari kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dutela ziurtatzeko, 2020/852 (EB) Erregelamenduaren 17. artikuluaren ildotik.

«Kalte esanguratsurik ez eragitea» printzipioaren aplikazioari buruzko gida teknikoa (EO C 58, 2021.02.18koa, 1. or.) erabat betetzen dela bermatzeko, honako jarduera hauek baztertzen dira: i) erregai fosilekin zerikusia duten jarduerak, horien geroko erabilera barne; ii) EBko isurketa-eskubideen merkataritza-araubidearen esparruko jarduerak, eragingo dituzten berotegi-efektuko gasen emisioak erreferentziazko parametroen azpitik egongo ez direla aurreikusten dutenekin lotuta; iii) hondakinen zabortegiekin, erraustegiekin eta tratamendu mekaniko-biologikoko instalazioekin zerikusia duten jarduerak; iv) hondakinak epe luzera ezabatzeak ingurumenari kalteak eragin diezazkiokeen jarduerak, DNSH ebaluazioa negatiboa den jarduerez gain.

Kontratistak eta, hala badagokio, haren azpikontratistek DNSH printzipioa betetzen dela egiaztatzen duen agiria aurkeztu beharko dute, DNSH printzipiora egokitzearen aldeko ebaluazioaren bidez, edo, hala badagokio, printzipio hori betetzen dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpen baten bidez, XIII. ERANSKINAren arabera. Nolanahi ere, erakunde esleipenduna erakunde kontratatzaileak «kalte esanguratsurik ez eragiteko» printzipioa betetzen dela ziurtatzeko hartzen dituen egiaztapen-mekanismoen eta neurri zuzentzaileen mende egongo da.

---

[1] Neurriaren helburua hau bada: a) batez beste, gutxienez tarteko sakonera-maila bat berritzea, eraikinak berritzeari buruzko Batzordearen 2019/786 (EB) Gomendioan definitzen den bezala, edo b), batez beste, berotegi-efektuko gasen zuzeneko eta zeharkako emisioak gutxienez % 30 murriztea lortzea, ex ante emisioekin alderatuta. Eraikinak berritzearen helburua da, halaber, azpiegiturak 85-92 esku-hartze eremuen barruan sartzea.

- Klima-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 100

- Ingurumen-helburuetarako laguntza kalkulatzeko koefizientea: % 40

- Trantsizio digitalerako laguntza kalkulatzeko koefizientea: Ez du aplikatzen

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Printzipio hori errespetatzeko betebehar orokorraz gain, kontratistek eta, hala badagokio, azpikontratistek neurriak izan ditzakeen DNSH baldintza espezifikoak bete beharko dituzte. BEEPeko 14. osagaiaren 1. inbertsioaren 8. atalean ezartzen denaren arabera, birgaitzea, ekipamenduak eta azpiegiturak eskatzen dituzten jarduketetan, DNSHko honako baldintza espezifiko hauek bete beharko dira:

1.....Klima-aldaketa arintzea.
Eraikinak birgaitzean, kontuan hartuko dira eraikinen energia-eraginkortasunari buruzko 2018/844 (EB) Zuzentarauan jasotako gidalerroak, ia energia-kontsumorik gabeko eraikinak izan daitezen, energia primario berriztaezinaren kontsumoa nabarmen murrizteko.

2.....Klima-aldaketara moldatzea.
Birgaitze-neurriei esker, eraikinak klima-aldaketara moldatu ahalko dira; horretarako, lehendik dauden eraikinek ahalbidetzen dituzten aukeren arabera egokitzapen-irtenbideak hartuko dira eta eraikinak eraikin babestuak badira, babestu egingo dira, hala nola landare-estalkiak, eguzki-oihalak eta itzal-zonak erabiliz.

3.....Baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarria eta babesa.
Ez da uste neurria kaltegarria izango denik baliabide hidrikoen eta itsas baliabideen erabilera jasangarrirako eta babeserako. Neurriaren helburua da turismo-helmugak eta horiek osatzen dituzten enpresak ekonomia zirkularreko estrategietara hobeto egokitzea, baliabide hidrikoen kontsumoa murriztea eta baliabide naturalak babestea, bereziki itsasokoak. Ur-aparatuak instalatzen direnean, Europar Batasuneko produktu- etiketaren bat izango dute. Obraren eragina saihesteko, uraren kalitatea zaintzearekin eta estres hidrikoa saihestearekin lotutako ingurumen-degradazioko arriskuak identifikatu eta landuko dira, uraren erabilera eta babesa kudeatzeko plan baten arabera. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitea aurreikusi da, IEE Zuzentarauaren arabera, eta proiektu bakoitza diseinatzean baliabide hidrikoak modu jasangarrian erabiltzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta islatu dira.

4.....Ekonomia zirkularreranzko trantsizioa, hondakinen prebentzioa eta birziklatzea barne.
(I)Inbertsio honetan aurreikusitako jarduketetan sortutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakin ez-arriskutsuen % 70 (pisuan), gutxienez (2000/532/EE Erabakiak ezarritako Hondakinen Europako Zerrendako 17 05 04 kategorian aipatutako material naturala izan ezik), berrerabiltzeko, birziklatzeko eta beste material batzuk berreskuratzeko prestatuko da, betelanak barne, beste material batzuk ordezkatzeko hondakinak erabiliz, hondakinen hierarkiarekin eta EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloarekin bat etorriz.
(II)Operadoreek eraikuntzarekin eta eraispenarekin lotutako prozesuetan sortutako hondakinak mugatuko dituzte, EBko eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak kudeatzeko protokoloaren arabera eta erabil daitezkeen teknikarik onenak kontuan hartuta. Eraispen selektiboa erabiliko dute substantzia arriskutsuak segurtasunez kendu eta manipulatu ahal izateko eta kalitate handiko berrerabilpena eta birziklapena errazteko; horretarako, materialak gaika ezabatuko dituzte, eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak sailkatzeko dauden sistemak erabiliz.
(III)Eraikinen diseinuek eta eraikuntza-teknikek zirkulartasuna lagunduko dute ISO 20887 arauari dagokionez, eraikinen desmuntatzeko edo egokitzeko gaitasuna ebaluatzeko eta nola dauden diseinatuta ebaluatzeko, baliabideen erabileran efizienteagoak eta moldagarriak, malguak eta desmuntagarriak izateko, berrerabiltzea eta birziklatzea ahalbidetzeko.

5. .....Kutsaduraren prebentzioa eta kontrola.
Ez da espero neurriak atmosferara, uretara edo lurzorura egindako emisio kutsatzaileak nabarmen handitzea, neurrien helburua baita, besteak beste, turismoak lurraldean duen presioa murriztea, jasangarritasunean oinarrituta. Neurriaren inbertsio bakoitzaren ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egingo da, IEEren Zuzentarauaren eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazioari buruzko araudi nazionalaren arabera, eta, proiektu bakoitza diseinatzean, lurzoruaren eta uraren kutsadura prebenitzeko eta kontrolatzeko beharrezkoak diren arintze-neurri guztiak identifikatu eta jasoko dira. Energia fosilak erabiltzen dituzten berokuntza- eta hozte-sistemen ordez kutsatzen ez duten teknologiak ezartzera bideratutako jarduketen izaera orokorrak aireko emisioak nabarmen murriztea eta, ondorioz, osasun publikoa hobetzea ahalbidetuko du. Eraikinen birgaitzea sustatzeari dagokionez xedatutako jarduketen izaera orokorrak, energia-eraginkortasunaren kontzeptua barne, argi eta garbi aurreikusten du kutsatzaile atmosferikoen emisioak murriztuko direla, batez ere energia-kontsumoa murriztearen ondorioz.
Eraikuntzan erabiliko diren eraikuntza-osagaiek eta -materialek ez dute amiantoa edo substantzia oso kezkagarririk izango, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1907/2006 (EE) Erregelamenduaren XIV. eranskinean agertzen den baimena behar duten substantzien zerrendaren bidez identifikatuta. Eraikuntzan erabiltzen diren eta erabiltzaileekin kontaktuan egon daitezkeen eraikuntzako osagai eta materialek 0,06 mg formaldehido baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, eta 1A eta 1B kategorietako konposatu organiko lurrunkor kantzerigenoen 0,001 mg baino gutxiago igorriko dituzte materialaren edo osagaiaren m^3 bakoitzeko, CEN/TS 16516 eta ISO 16000-3 edo bestelako froga-metodo estandarizatuen bidez eta konparagarriak diren zehaztapen-metodoekin bat

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

etorriz frogatu ondoren. Gainera, obra-fasean zarata, hautsa eta emisio kutsatzaileak murrizteko neurriak hartuko dira, eta neurri horri lotutako jarduketak egingo dira, betiere lurzoruak eta ura kutsatzeko arriskua dela-eta indarrean dagoen araudia betez.

6.....Biodibertsitatearen eta ekosistemen babesa eta leheneratzea.
Neurriak ez du ondorio kaltegarririk izango biodibertsitatean eta ekosistemetan, natura-, itsaso- eta lur-inguruneak babestuko dituelako, Espainiako turismo-politikaren elementu bereizgarri gisa. Birgaitze-jarduketak biodibertsitatearekiko sentikorrak diren eremuetan (eremu babestuen Natura 2000 Sarea, UNESCOren Munduko Ondareko guneak eta biodibertsitaterako funtsezkoak diren eremuak, bai eta beste eremu babestu batzuk ere) edo hurbileko eremuetan egiten direnean, Habitatei buruzko Zuzentarauaren 6. (3) eta 12. artikuluak eta Hegaztiei buruzko Zuzentarauaren 5. artikulua bete beharko dira. Gainera, nahitaezkoa denean, Ingurumen Inpaktuaren Ebaluazioa (IIE) egingo da, IEE Zuzentarauaren arabera.

Jarduketak diseinatzean eta garatzean DNSH printzipiora egokitzeko, honako gida orientagarri hau erabili ahal izango da:

https://www.miteco.gob.es/es/ministerio/recuperacion-transformacion-resiliencia/transicion verde/guiadnshmitecov20_tcm30-528436.pdf

II. AURREKARIAK

2018an, Bermeoko Udalak energia-eraginkortasunaren bideari ekin zion, argiteria publikoaren zati bat ordezkatuz eta argiteria publikoaren koadroak telekudeatuz pizteak/itzaltzeak eta energia-kontsumoak kontrolatzeko.

Lamerako parkea une hartan proiektutik kanpo geratu zen, eta orain nahi dugu argi eraginkor eta adimentsua ematea, *City Touch* edo antzeko puntutik punturako telekudeaketa-sistemaren bidez.

Hau guztiaren espero da argi-kutsadura neurri handi batean murriztu eta emisioak gutxitzen laguntzea, bereziki argi intrusoari dagokionez.

Edozein kasutan, proiektuak jasotako proposamen teknikoa udalaren on iritzia jaso beharko du eta esleipenduna alternatibak aurkeztu beharko du udalak horrela eskatzen badu.

II. DESKRIBAPENA

Jarduera honekin Lamerako parkeari argiteri inteligente eta, aldi berea, efizientea ematea helburu da. Honekin aurrezpen energetikoa eta CO2ren emisio murrizketak eragitea bilatzen da. Helburu horiek lortzeko argi potentzien konfigurazio edota argi puntu independenteen itzalketa aurrera eraman ahalko dira, Udalaren beharrizanen arabera. Kontratazio honetan honako zerbitzu hauek sartuko dira:

- Proiektuaren idazketa lanak

Idatziko den proiektuak Lamerako parkean argiteri inteligentearen instalazioa barneratuko du.

Esleipendunak idatzi eta entregatuko du proiektu bat, dagokion dokumentau eta altal guztiekin, baldintza tekniko orri hauetan deskribatutako helburua lortzeko dagokion lizitazioa ahalbidetuko duena. Dokumentu tekniko horrek honako hau jasoko du gutxienez:

1.- 1890/2008 Errege Dekretuaren eta 2002ko BTEEaren arabera kanpoko argiteria berritzeko exekuzio-proiektua bakarrik garatzeko gaur egungo datuak hartzea.

2.- Memoria. Egin beharreko instalazioaren memoria, aurrekariak, antzamenandutako beharizanak zein ondorioztatutako konponbiderako justifikazioa, baita esleipendunak hala kontsideratzen duen oharrak ere.

3.- Gunearen planoa/k, eskemak eta argi puntuen puntuz puntuko kokapen zehatzaren egoera plano zehatza.

4.- Baldintza tekniko zehatzen agiria. Hauetan instalazioaren eta kontratuaren objektuaren denaren deskribapen eta honen exekuzioa aurrera eramateko jarraitu behar diren pausoen erlazio zehatzak islatuko dira. Era berean, hauetan ere, instalazioa egikaritzeko erabili behar den teknologia eta materialen ezaugarri espezifikoak islatu beharko dira eta kontratistari dagozkion betebehar tekniko eta kalitatearen eta exekuzio prozesuaren kontrol bat aurreikusiko da.

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS SERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.
Kodea:
07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Sinadurea eta datea
JON MIKEL FORURIA MARTIN-URIGINTZA TEKNIKARIA - 04/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/06/2024 15:04:08

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0004
Datea: 14/02/2024
Lekua: Bermeon
Erregistro unidadea: Erregistro nagusia

5.- Osasun eta segurtasun oinarrizko azterlana.

6.- Hondakien kudeaketarako azterlana (RCD)

4.- Exekuzio aurrekontua. Zehatz mehatz bananduta aurrera eraman behar den jardueraren unitate bakoitza bereiziz.

5.- 026bis etiketaren justifikazioa barneratu beharko da.

5.- Lege edo erregelamenduetan aurreikusten den dokumentazioa.

- Obraren zuzendaritza

Esleipendunak Lamerako parkean argiteri inteligentearen instalazioak suposatzen duen pauso bakoitzaren ebaluazio eta jarraipen zehatza aurrera eraman beharko du, bereziki exekuzio finalaren eta azken kostuaren gainbegiraketa, baita mota honetako jardutetarako zuzendaritzak barneratzen dituen jarduera guztiak ere.

III.- EZAUGARRI TEKNIKOAK

Jarduera honen inguruko nabarmentzekoak diren ezaugarri teknikoei buruz hurrengokoak aipatzekoak dira:

1.- Argiteriaren hobekuntza

Argi-errendimendu handi bat izateagatiko argiteri berriaren instalazioaren eta LED teknologia erabilpen eta erreflektoreen garapenaren bitartez argiteriaren eraginkortasuna hobetuko da.

2.- Efizientzi energetikoa

Instalazioan efizientzi energetikoa hobetuko da era garrantzitsu batean, teknologia LED-eko luminariak instalatuz.

3.- Puntuz puntuzko telegestioa

Argi guztietan puntuz puntuzko instalatuko da. Honen bitartez, argiaren egoera eguneratua jakitzea posiblea izango da, hala nola honek piztu zein itzali edota hauek erregulatzen duten kurba aldatu ahalko da, beharizanen arabera. Hauek *City Touch* deitutako sistema edo antzekoa instalatuta edukiko dute.

4.- Aurrezpen energetiko eta ekonomikoa

Potentzien murrizketa handia(erregulazio kurbak kontuan izan barik), aurrezpen energetikoa lortuko da, besteak beste, hasieran adierazi den moduan, instalazioarekin energiaren-kontsumoaren %30eko, gutxienez, murrizketa lortzea aurreikusten da. Era berean, aurreikusten da aurrezpen ekonomikoa nabarmena izatea faktura elektrikoa eta CO2ren emisio murrizketa bat izatea. Hauxe justifikatu beharko da proiektutan dagokion atala jasota.

5.- Etiketa 026bis

Jarduera hau etiketa 026bis deitutako ziurtagiria izango du. Hala nola, Errekuperazio eta erresilientziaren mekanismoa ezartzen duen 2021eko otsailaren 12ko Europar Parlamentu eta Kontseiluaren 2021/241 Erregelamenduak (EB) adierazten duen bezala, etiketa 026bis hau azpiegitura publikoetan aurrera eramandako eta efizientzia energetikoarekin harremana duten berriztatze jarduera zein efizientzia energetikoarekin erlazio duten demostrazio eta laguntza neurriak egikaritzeko jardueren kasuetan aplikatuko da. Kasu honetan, justifikaturik geratzen da etiketa honen inklusioa kontuan hartutik Lamerako parkearen efizientzia energetikoa zuzenean hobetzen duen jarduera baita.

Lamerako parkearen argiztapen inteligentea 026 bis etiketako baldintzak bete beharko lituzke. Etiketa horrek berotegi-efektuko gasen zuzeneko eta zeharkako isurketak, batez beste, % 30 murriztea dakar, *ex*

CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

ante emisioekin alderatuta eta, murrizketa hori egiaztatzea ahalbidetzen duen frogabide baliagarri batekin justifikatu behar da.

IV.- AURREKONTUA

Kontratu honen objektu den zerbitzuaren oinarrizko lizitazio aurrekontuari hurrengokoa aurreikusten da:

- **Proiektuaren idazketa lanak eta obraren zuzendaritza.**

4.000,00 euro BEZa kanpo. BEZari dagokion zenbatekoa: 840,00 euro. Guztira, luzapenak barne: 4.840,00 euro.

Balio estimatuari dagokionez, honela zehazten da:

Zuzeneko kostuak: 2.800,00 euro

Zeharkako kostuak: 1.200, 00 euro

Kontratuaren zenbatekoan kontratatzen diren lanen zenbateko guztia barneratzen da (proiektuaren idazketa lanak beharreko baliabide pertsonal eta materialak, etab). Proiektuaren modifikazioan ager daitezkeen modifikazioak edo esleipendunari egotzi dakiozkeen bestelako gastuak. Hortaz, ez da goian zehaztutako kantitateaz aparte gehiagorik ordainduko.

V.- KOKAPEN PLANOA

Jarraian Lamerako parkearen kokapen plano bat atxikitzen da gida bezala.

- Taberna-gunea, argiteria fatxadan, berdez markatuta.

- Parkea eta itsas pasealekua, urdinez markatuta.

- Estatuak eta haurren aldea, morez markatuta.



CSV: 07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

STEMMA PRODERI IN PRIMIS BERMEI

Agiri hau benetakoa dala udalaren egoitza elektronikoan egiaztatu ahal dozu.

Kodea:

07E8000FE19A00J3Z6A3L9S0A5

Sinadurea eta datea

JON MIKEL FORURIA MARTIN-URIGINTZA TEKNIKARIA - 04/06/2024
CN=tsa.izenpe.com, ORGANIZATIONIDENTIFIER=VATES-A01337260, O=IZENPE S.A., C=ES - 04/06/2024 15:04:08

EXPEDIENTE :: 2024KON_IS_0004

Datea: 14/02/2024

Lekua: Bermeon

Erregistro unidadea: Erregistro nagusia